

EUSKALTZAINDIK ETA *BERRIA* EGUNKARIK HITZARMENA SINATU

2008ko urriaren 31n, Euskaltzaindik eta *Berria* egunkariak hitzarmena sinatu zuten, Akademiaren Donostiako ordezkarietan. Hitzarmen horren bitartez, *Berria* egunkariak, ekoizten dituen testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko ditu, egunkaria kaleratu zen unekoetatik hasita, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa garatu dezan. Hitzarmena Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Joanmari Larrarte *Berria* egunkaria sortu zuen Euskarazko Komunikazio Taldeko (EKT) kontseilari ordezkariak sinatu dute.

Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldearen proposamena da eta ikerketarako testu-corpus etiketatu eta linguistikoki anotatu bat prestatzea du oinarritzko lana. Zehatzago esanda, Hiztegi Batuko lantaldeak prosa arruntezko corpus monitore bat prestatzea proposatu zuen, bai lexikoaren erabileraren azterketak egiteko, bai eta lexikoari dagozkion arauak eta gomendioak dokumentatzeko ere.

Corpus hori osatzeko hainbat hornitzaile aurreikusi ziren, hedabideak bereziki, eta hauen artean, besteak beste, interes orokorreko komunikabideak, jakintza eremuetakoak (literatura, zuzenbidea, erlijioa, zientzia, teknologia, artea, kirola, etab.), edota administrazioetako hizkera arrunta –ez espezializatu– lantzen dutenak. Bestalde, gutxienez 2000. urtetik aurrera sortutako testuz osatuko da corpora eta etengabe elikatuko da.

Testuinguru horretan kokatzen da gaur *Berria* egunkariak eta Euskaltzaindik sinatu duten hitzarmena. Honen bitartez, *Berriak* bere produkzio guztia Euskaltzaindiaren esku jarriko du, Lexikoaren Behatokia egitasmoan erabiltzeko. Bestalde, esan behar da Lexikoaren Behatokia egitasmoa UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatuko duela Akademiak.